

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako hautesleen % 60,2k hartu dute parte hauteskundeetan, arratsaldeko 7etako datuen arabera

Botoemaileen kopurua duela lau urtekoa baino 6 puntu txikiagoa izan da

Domingo, 22 de mayo de 2011

Gaur Foru Erkidegoan egin dituzten Nafarroako Parlamenturako eta kontzejuetarako hauteskundeetako parte-hartzea % 60,2koa izan da 19:00etan, hau da, 262.168 herritarrek eman dute boza. Hala jakinarazi du Javier Caballero Lehendakaritza, Justizia eta barne kontseilariak hedabideen aurrean egin duen agerraldian.



Gogoratu 2007ko hauteskundeetako partaidetza % 66koa izan zela ordu horretan. [Partaidetzaren inguruko datuak hauteskundeetan webgunean azaltzen dira dagoeneko](#). Webgune horren bitartez ere jarraitu ahal izango da zenbaketa hauteslekuak itxi ondoren, hau da, 20:00etatik aurrera.

Nafarroako Gobernuak jakinarazi duen bezala, Nafarroa osoan jarri diren 986 hauteskunde mahaietarako ateak normaltasunez ireki ahal izan dituzte, Foruzaingoak bildutako datuen arabera. Gazteluberriko hauteskunde mahaia izan da itxi duten lehenengoa, herriko 17 botoemaileek boza eman ondoren.

Gorabeherak

Huteskundeen eguna normaltasun osoz igaro da Nafarroan eta ez da gorabehera handirik gertatu.

Gertaera txiki batzuk baino ez dira aipatzekoak. Foruzaingoak konpondutako gorabeheren artean, hauteslekuak irekitzean gertatu direnak dira nabarmentzekoak, esate baterako, Arruazuko udaletxeko fatxadan politikarekin loturiko pintada bat egin dute goizaldeko 1:35 aldera eta bozketa hasi denean ezabatu dute.

Horrez gain, 9:14 aldera, Bilduren pankarta bat kendu dute Puiuko hautesleku ingurutik, baita Tafallako Kultur Etxean eta Gizarte Etxean jarri dituzten Bilduren pegatinak ere. 9:21ean, alderdi politikoen inguruko

pankartak jaitsi dituzte Tirapun, Eneritzen, Artikan, Zizur Nagusian, Arazurin eta Berriozarren.

Amaitzeko, 9:27ean Bilduren pegatina batzuk kendu dituzte Arazuriko hauteslekuaren sarrerako hormatik.